



<b>Berdintasuneko Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUNERAKO KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bilerari buruzko datuak:**

Data: 2012-09-27    Lekua: Santa Clara Jauregia    Ordua: 17:00etatik 18:45era

**Bertaratuak:**

Enclave de ciudadanas por Getxo elkarte: Charo De la Peña

Eskuz-Esku: Isabel Perez

Gizatiar: Maite Egia, Carmen Peña

Roda: Clara Lorenzo

Udal Talde Sozialista: Teresa Garcia Oviedo

Talde Popularra: Ana Basilio

Bildu: Maitane Nerekan

EAJ-PNV: Elena Coria

Lehendakaritza: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Falta direnak:**

Getxo Enpresa

ELA-STV

**Gai-zerrenda:**

- Jaietako kanpainaren balantzea
- Azaroak 25, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna
- Historiako beka
- Emakumeen jabeakuntza eskola
- Maskulinitatea birpentsatuz tailerra
- Beste batzuk

## **Jaietako kanpainaren balantzea**

Berdintasunerako Zerbitzutik jaietako kanpainaren edukiari buruzko informazioa ematen da. Aurreko urteetan egin izan den moduan, kanpainak berdintasunean oinarritutako jaiak eta eraso sexistarik gabeak aldarrikatu ditu. 800 kartel jarri dira eta ondo ikusiak izan dira, dendetan eta tabernetan denbora luzea iraun dute.

Jai-batzordeekin izandako lankidetzari dagokionez, deialdia beste udal-zerbitzuekin<sup>1</sup> batera egin zela gogorarazten da eta Algortako eta Portu Zaharreko Batzordeak etorri zirela (Erromokoari ere deitu zitzaion, baina, azkenean, ezin izan zuen etorri). Berdintasunean oinarritutako jaiak aldarrikatzeko lankidetzaren proposamena egin bazitzairen ere, zeinak, harrera ona izan zuen, hori ez da ezer zehatzean gauzatu, Batzordeek gerora ez baitute inolako proposamenik ez eskabiderik egin.

Erromoko Emakume Gazte Asanbladaren topaketa bat ere egin zen jaietan egiten duten kanpainaren berri lehen eskutik jakiteko. Berdintasunerako Teknikariak emakume-talde honek antolatutako jarduerak oso positiboki baloratzen ditu; izan ere, erakunde horrekin lankidetzan arituko diren edo ez alde batera utzita, kalean jai ez sexisten aldeko mezua egotea garrantzitsua dela deritzo.

Eskuz esku elkarteak urtean zehar Jai-Batzordeekin harremanetan egotea garrantzitsua litzatekeela planteatzen du.

## **Azaroak 25, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna**

Gizatiar elkarteak aurten kontzentrazioa hilaren 22an, osteguna, deituko duela adierazten du, hilaren 25a igandea baita.

Beste urteetan egin ohi den moduan, azaroko gainerako ostegunetan, berdintasunari buruzko hitzaldiak deituko dira, oraindik zehazteko badaude ere.

### Puntu morea

Enclave elkarteak udalerrian puntu more iraunkorra jartzea proposatzen du *gertatzen diren genero-indarkeria gertaeren aurrean beren gaitzespena adierazi nahi duten pertsonak biltzeko aukera izan dezaten* (aurkeztu duten idatzia Eranskinean dago).

Horretarako tokirik egokiena zein den eztabaidatzen da. Enclave elkartearentzako egokiena Telletxe da, joan-etorri handiko tokia, non, gainera, Bilgune Feministak azaroaren 25eko manifestaldiak deitzen dituen; beraz, toki egokia izan daiteke. PSOE taldeko ordezkariak San Nikolas plazan gune bat izendatzea proposatzen du, udalerrian erreferentziazko gunea izango baita, zeina, era berean ez den joan-etorriko zona. Iraunkorra izango den gune batean pentsatzea hobe dela uste du. Alabaina, Getxo Antzokiaren obrak eta, beraz, plazarenak, luzerako direla jakinda,

---

<sup>1</sup> Ikus 2012-06-05eko Akta

beste aukera batzuk aztertzea erabakitzen da. Besteak beste, Zubi Etekiaren plaza aipatzen da, baina, azkenean, ez da ezer zehazten.

Berdintasunerako zinegotziak proposamena Gobernu Taldera eramatea eta Hirigintzako zerbitzu teknikoei kontsultatzea planteatzen du formatuari edo erabili beharreko materialei eta kokapenari dagokionez aukerarik egokiena zein den ikusteko.

Puntu morearekin jarraituz, buzoneorik ez egitea erabakitzen da, paperetan dakarren gastua saihesteko, baizik eta, puntuak Kultur Etxean eta Herritarren Arreta Bulegoetan interesaturik dauden pertsonen eskuragarri jartzea.

Berriro ere, lau udal-eraikinetan kartelak jarriko dira eta dendetarako eta tabernetarako biniloak editatuko dira.

Puntu morearekin eta indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako telefonoekin orrialde markagailuak editatzea proposatzen da eta azaroaren 25eko aste horretan udal-liburutegitan eta Kultur Etxeetan banatzea.

#### Beldur Barik

Beldur Barik kanpainaren baitan, jada, gazteei zuzendutako bideo-sormenaren tailerraren aurkezpena egin da. Tailerrean emakumezko bi monitore egongo dira, horietako bat bideo-sormenean espezialista da eta, bestea, berdintasunerako teknikaria, eta neska-mutilak Beldur Barik lehiaketan parte hartzera animatuko ditu tailerrean egindako bideoekin. Oso harrera ona izan du.

Jarduera horretaz gain, Getxoko Udala Beldur Barik kanpainari publizitatea egiten ari zaio Getxo gertu pantailen, kartelen eta web orriaren bitartez. Halaber, Gasteizko Topaketa (kanpaina amaierako topaketa) zabaltzeko eta adin txikikoen bidaien baimenak kudeatzeko konpromisoa ere badu.

#### Hitzaldiak eta emakumeen abesbatzaren emanaldia

Berdintasunerako Zerbitzuak jarraian adierazten dituen gaien inguruan hitzaldi bana egitea proposatzen du:

- Sexu-erasoei buruzkoa Manuela Torres Calzada abokatuaren eskutik.
- Gizonak indarkeriaren aurrean gaiari buruzkoa, AHIGE elkartearen eta Zipristinak Ermuko gizonen elkartearen eskutik.

Proposamen honekin aurrera jarraitzea erabakitzen da.

Onartzen den beste jarduera bat Entredos emakumeen Abesbatzaren emanaldia da, azaroaren 11n, igandean, eguerdian, Algortako Kasinoan izango dena. Munduko

abestiak interpretatzen dituen eta emakume konpositore, idazle, poeta eta abarrek sortutakoak berreskuratzen dituzte.

### **Historiako beka**

Getxoko historiari ekarpenak egin dizkien emakumeen ekarpenei buruzko II. Bekara 15 proiektu aurkeztu dira. Proiektuetako bat kanpoan geratu da epez kanpo aurkeztu zelako. Gaia eta denborazkotasuna oso desberdinak izan dira. Bekaren ebazpena urriaren amaierarako egotea itxaro da.

### **Emakumeen jabekuntza eskola**

Eskolan aurrez izena eman dutenak 600etik gora izan dira<sup>2</sup>, horietako askok lehenengo aldiz hartu dute parte eskolan eta hori oso positiboa da. Alabaina, beste behin ere, eskaera-kopurua plaza-kopurua aldean handia izan da.

### **Maskulinitatea birpentsatuz tailerra**

Eskolaren kasuan ez bezala, oso zaila izan da gizonei zuzendutako tailerrera plazak betetzea, baina, azkenean, aurrera irten ahal izan du 14 lagunek izena ematean.<sup>3</sup>

### **Hurrengo bilera**

Hurrengo bilera abenduaren 13an, arratsaldeko 17:00etan izango dela erabakitzen da.

Lantzeko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da.

---

<sup>2</sup> Bileran zenbateko txikiagoa aipatu zen inskripzio batzuk kontatu gabe zeudelako.

<sup>3</sup> Bilera egiteko unean, 5 inskripzio baino ez zeuden.

## **Eranskina**

“Enclave” elkarteak lehen ere, birritan eskatua zuen hirigunean pankarta zuria puntu morearekin modu iraunkorrean jartzea genero-indarkeriaren aurka protestak egiteko. Modu iraunkorrean jartzeak dakartzan zailtasunez jabetuta, azaldu zitzaiguna kontuan hartuta, beste ekintza bat iradokitzen dugu, esate baterako, gure udalerriko gune jakin bat izendatzea genero-indarkeriaren aurkako ekintzen aurka gaitzespena adierazi nahi dutenak bildu daitezen. Gune hori puntu more batez seinalezta daiteke, nahiz lurrean margotuta nahiz beste seinaleztapen-mota batekin.

Azaroaren 25a, genero-indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna, hurbil dagoela ikusirik, eskabide horri erantzuteko oroitza aprobeztatzea eskertu nahiko genuke.